

Arratia

"Bidean Gagoz"

TOKIKO AGENDA 21 en aldizkaria / 2009ko iraila

Hobetu zure hiriko klima

Irailaren 14an hasiko dira Arratian Mugikortasun Iraunkorraren Europako Astearen barruan antolatutako ekitaldiak. *Hobetu zure hiriko klima* lelopean, Klima Aldaketari aurre egiteko ohitura berriak sustatu beharraz ohartarazi nahi dituzte Arratiako biztanleak.



Jardunaldiak Areatzako (irailaren 14an eta 28an) eta Igorreko (irailaren 16an) Mugikortasun Foroekin hasiko dira. Hiritarren iritzia ezagutzeko eta tokiko Mugikortasun Planak diseinatzeko antolatu dituzte -19:00etan hasiko dira Areatzako Udaletxean eta Igorreko Kultur Etxean-.

Ostiralean, irailaren 18an, CO₂ emisioak kalkulatzeko stand-a jarriko dute

Mugikortasun Iraunkorraren Europako Astearen harira Arratiako Udalen Mankomunitateak egitarau interesgarria antolatu du

Mugikortasun Astea Nire autorik gabeko hiria! ipuin eta marrazki lehiaketako sari-banaketa eta erakusketarekin amaituko da

Areatzako udaletxeko arkupetan. Stand-a 17:00etan zabalduko dute.

Irailaren 19an, berriz, doako tren turistikoa batek Merkatea eta Areatza arteko ibilbidea osatuko du, garraio publikoaren erabilera sustatzeko.

Hurrengo egunerako Bedia eta Zeanuri arteko ibilbidea antolatu dute, Arra-

tiako ibaiertzean zehar. Irteera 9:30ean izango da, eta herri guztietatik pasako den autobus zerbitzua jarriko dute Bedia joateko zein Zeanuritik itzultzeko. Erdi bidean, hamaiketako izango da Igorren indarrak berritzeko eta, ibilaldia amaitzean, lancha Zeanurira.

Mugikortasun Astea irailaren 22an amaituko da Nire autorik gabeko hiria! ipuin eta marrazki lehiaketako sari-banaketa eta erakusketarekin. Mugikortasun Iraunkorren jaialdia 16:00etan hasiko da Igorreko kulturetxe inguruan.

AURKIBIDEA

- Mugikortasun iraunkorrenantz 02
- Arratia GAP programarekin bat 03
- Ohiturak aldatzeko prest 04
- Klima Aldaketari aurre egiteko aholkuak 06
- OINEZBUSA Igorren 07



Babesleak:

EUSKO JAURLARITZA

INGURUMEN, LURRALDE PLANINGITZA, NEKAZARITZA ETA ABANITUEN SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACION TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA



Editoriala | Ohitura aldaketak

Uda pasata, iraila ikasturte berriko egitasmoak antolatzeko hilabetea izan ohi da. Ohikoa bihurtu da urte sasoi honetan gisa honetako promesak egitea: “ikasturte honetan etxeko lanak egunera eramango ditut”, “kirola egiten hasiko naiz” edo “ingeleseko akademian izena emango dut”. Gehienetan bete gabeko promesak izaten dira.

Ez da gure aldizkariaren kasua. *Arratia 21 Bidean* gagozen hamazazpigarren zenbakia itxuraldatuta aurkezten

da, apaindura gutxiko *look* moderno eta dinamiko batekin. Filosofia, ordea, ez da aldatzen. Orain lau urte abiatutako helburua bere horretan mantentzen da: Arratiako eskualdean iraunkortasunaren alde egiten duen aldizkaria argitaratzea, bertako biztanleen artean ingurumenaren aldeko neurriak etxetik bertatik hartu behar ditugula sentsibilizatzea.

Badakigu ohiturak aldatzea nekeza dela. Baina edozein aldaketa, eragin minimoa izango duela iruditu arren,

ziklo berri baten abiapuntu izan daiteke. Mugikortasun Iraunkorren Europako Astearen harira antolatutako ekitaldiak ohiturak aldatzen asteko une aproposa izan daitezke. *Hobetu zure hiriko klima* lelopean antolatutako ekimenetan parte hartuz, Klima Aldaketaren mehatxuari aurre egingo diogu, ingurumenaren, ekonomiaren eta bizi kalitatearen mesederako.

Etorkizuneko belaunaldiek zinez eskertuko dute.

Arratiak Mugikortasun Iraunkorren aldeko apustua egin du

Arratiako Udalen Mankomunitatean mugikortasun iraunkorra sustatzeko eta ingurumena errespetatzeko indarreansartu diren neurriak eraginkorrak suertatzen ari dira. Bistakoa da Arratiako udalerrri guztiek bat egin dutela mugikortasuna hobetzeko estrategiarekin: oinezkoentzako bideak egokitu dituzte, bidegorri sareak luzatu dira, autoei hiriguneetara sartzeko debekatu zaie eta Areatzan, Bedia zein Igorren [Mugikortasun Iraunkorreko Planak](#) diseinatu dituzte. Helburu hori gauzatzeko bidean instituzioetatik emandako bultzada garrantzitsua izaten ari bada ere, biztanleen inplikazioari esker dira eraginkorrak.

[Landa-taxia](#), [Medikauto](#) zerbitzua edo [kotxea partekatze](#)ko programa garraio publikoaren aldeko apustua adierazten duten hiru adibide baino ez dira. Lehenengo biak oso sustraituta daude: landa-taxia Zeanuri, Dima eta Arteaiko biztanleek erabiltzen dute eta, datorren urtetik aurrera, Igorrekoek ere izango dute erabiltzeko aukera.

Lemoako biztanleek, berriz, [Medikauto](#) zerbitzuarekin osasun zentrorra doan joateko aukera dute. Zerbitzu hori Arraibiko biztanleei zuzenduta dago.

Kotxea partekatze programan erabiltzaile kopurua murrizta da, baina etorkizunean geroz eta herritar gehiagok erabiltzea espero da. Izan ere, doako zerbitzu horri esker urtero 14,64 tona CO₂ gutxiago isurtzen da eta 5.500 euro aurrezten da erregaian.

Epe laburreko nobedadeak

Neurri horiekin batera, epe laburrean garraio publikoa sustatzeko beste bi neurri aurkeztuko dira: [Mankomunitateko Mugikortasun ikerketa eta Arratiako tranbia](#). Era berean, [Arratian bidegorria](#) ezartzeko egitasmoa bide onetik doa; Usansolo eta Bedia elkartuko dituen tartea osatzeko proiektua bukatuta dago, eta Bedia eta Lemoako geltokia elkartuko dituen amaitzear. Tarte hori bukatzean, Igorrerako lotura egingo da, eta jarraian Zeanuriraino iritsiko dena.

Epe laburrean garraio publikoa sustatzeko beste bi neurri aurkeztuko dira: Mankomunitateko Mugikortasun ikerketa eta Arratiako tranbia



Zortzi mila tona CO₂ gutxiago atmosferara

Arratiako udalerriek energia berriztagarrien alde egin duten apustua da eskualdeak Klima Aldaketaren aurka egiten duen lanaren isla garbiena. 2008ko datuak kontuan hartuz, Arratian 17.444.234 kWh ekoizten dira urtean eta, horren ondorioz, 8.024 tona CO₂ gutxiago atmosferara isurtzen.

Egun, hainbat eraikin publikotan eguzki-plaka fotovoltaikoak ezarrita

daude (udaletxetan, ikastetxetan, frontoietan eta bestelako kirol eraikinetan etab.) eta urtean 66.000 kWh ekoizten dituzte, guztira. Era honetan, urtero 30,36 tona CO₂ gutxiago isurtzen da atmosferara. Horiez gain, badira beste hainbat instalazio publiko nahiz pribatu energia-iturri berriztagarriez hornitzen direnak: energia minihidraulikoa, eolikoa, eguzki-termikoa eta biomasazkoa kasu.

Arratiako zortzi udalerrietan gehien ustiatzen den energia berriztagarri mota hidraulikoa da, urteko 16.397.500 kWh-ko emaitzarekin. Ondoren, biomasazkoa (zabortegetako metanoa) dator, urteko 649.699 kWh-ekin. Eguzki-energia termiko bidez 304.995 kWh ekoizten dira eta fotovoltaiko bidez, ostera, 89.740 kWh. Azkenik, energia eolikoa erabiliz 2.300 kWh ekoizten dira.

CO₂: isuri bai, gutxitu ere bai

Pertsona guztiok CO₂ isurtzen dugu etengabe eta horren jakitun gara. Baina, ba al dakigu zenbat CO₂ isurtzen dugun atmosferara? Eta kontziente al gara isurketa horiek ekidin ditzakegunaz?

Berotegi-efektua sortzen duten gasak dira, eta batez ere CO₂-a, klima-aldaketaren eragile nagusietakoak. IPCC, Klima Aldaketaren Gobernuarteko Panela, erakundearen azken txostenak dio gisa honetako gasen isuriak gutxituz giza taldeekiko eta natur sistemekiko eraginak leunduko eta atzeratuko liratekeela.

Herritar bakoitzaren CO₂ emisioak ezagutzeko www.stopco2euskadi.com eta www.ekopass.org atariak eskuragarri daude Sarean. Atari horiek bere isuriaren datuak erakusten dizkio erabilzaileari, etxeko fakturen datuak eta eguneroko ohituren informazioa kalkulagailu batean sartuz. *Stopco2euskadi* atariak administrazio publikoaren nahiz enpresen isuriak ere kalkulatu ditu. *Ekopass* atariak, berriz, kalkulagailu bereziak ditu kotxe nahiz hegazkin-bidaiak neurtzeko.

Datu horiek eskuartean, bi atariak isuriak murrizteko aholkuak ematen dituzte. *Ekopass-ek* isuri horiek konpentsatzeko bonoak ere eskaintzen ditu, energia berriztagarrien proiektuetan inbertituz.

Arratiako familiek GAP programan parte hartu dute


Pasa den ekainaren 28an amaitu zen Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzetako GAP (Global Action Plan) programako laugarren edizioa. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolaketa, Nekazaritza eta Arrantza Sailak antolatuta, Udalsarea 21en bitartez, EAeko 3.681 etxek parte hartu dute azken edizioan, horietako 149 Arratiako Udal Mankomunitatekoak.

GAP programaren helburua gure planetaren ingurumen egoera hobetzea da; etxetik hasita, familiei euren eguneroko jokabideak hobetzen lagundu nahi zaie ohitura jasangarriagoak transmitituz. Azken finean, GAP programa bizitzaren estilo berria sustatu nahian daibil, bizitza estilo jasangarriagoa.

Arduradunek emandako datuen arabera, azken edizioa aurreko hirurak bezain arrakastatsua izan da. Herriz herriko datuak oraindik eman ez dituzten arren, aurreratu dutenez GAP programari esker 308 tona CO₂ gutxiago isuri da.

Datu esanguratsuak

Garraibideei dagokienean, parte



hartu duten etxeetan batezbesteko murrizketa % 9,83 izan da. Beste modu batera esanda, urte bakarrean 126 tona petrolio edo 157.280 litro erregai aurreztu dira. Energia kontsumoa ere murriztu egin da, batezbeste % 5,59 etxeko -66,2 tona petrolio-.

Batezbesteko ur kontsumoa ere izugarri jaitsi da, etxe bakoitzean kontsumoa % 6,5 jaitsiz, hau da, urte bakarrean 18,5 milioi litro. Azkenik, etxe bakoitzak hondakinen ekoizpena % 1,71 gutxitu du, hots, 50 kilo hondakin gutxiago sortu dira etxe bakoitzean.

Arratia ohiturak aldatzeko prest

Asebetetze inkesta baten arabera, Mankomunitateko biztanleen % 80 garraio publikoa gehiagotan erabiltzeko prest legoke

Arratiako Udalen Mankomunitateak 2009ko martxoan eta apirilean herri-tarren pertzepzioaren gaineko inkesta egitea agindu zuen Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan, Tokiko Agenda 21eko adierazleak neurtzeko helburuarekin.

Txostenak bi hilabete horietan egin ziren 421 galdeketen emaitzak jasotzen ditu eta Arratiako 11.623 biz-

tanleak ordezkatzeko ditu. Galdeketa Mankomunitatea osatzen duten zortzi udalerrietan egin zen, elkarrizketatuak sexuaren eta adinaren arabera proportzionalki banatuz.


Txostenak, besteak beste, biztanleriaren azterketa soziodemografikoa, herritarrek mankomunitatearekin daukaten asebetetze maila, lurralde eta plangintza datuak, ingurumen

egoera, datu ekonomikoak, sozialak, eta abar jasotzen ditu. Eta atal monografiko batean mugikortasun eta garraio datuak aurkezten dira. Datozen bi orrialdeetan atal hori laburtzen ahaleginduko gara.

Lanera autoan

Garraio publikoak geroz eta erabiltzaile gehiago dituen arren, oraindik ere arratiarren gehiengoak autoa

Astean zehar mugiarazteko arrazoi nagusia adinaren arabera



hartu behar izaten du lanera joateko. Hori da galdeketak uzten duen ondorioetako bat. Elkarrizketatuen % 46,67k aitortu du autoa hartu behar izaten duela lanera joateko. Beste % 17,38k erosketak egiteko behar izaten du, egunerokoak zein astekoak;

% 12,38k ikasketak egitera joateko, eta beste % 11,90k aisialdirako.

Bidaia horietan egiten dituzten kilometro kopuruari erreparatzen badiogu, gehienak bidaia laburrak dira. Joan-etorrien batezbestekoa ez da 26

kilometrotara iristen. Autoan pasatzen duten denbora, berriz, 35 minutu ingurukoa da.

Azken finean, galdeketak islatzen duenaren arabera, garraio pribatua erabiltzen duten gehienek, % 40k

Barneko desplazamenduak Arratian

Udalerrria / Municipio	Udalerrri berbera / El mismo municipio	Areatza	Dima	Igorre	Lemoa	Zeanuri	Total general
ARANTZAZU	6,25%	0,00%	0,00%	93,75%	0,00%	0,00%	100,00%
AREATZA	80,00%	0,00%	0,00%	10,00%	10,00%	0,00%	100,00%
ARTEA	45,83%	8,33%	4,17%	41,67%	0,00%	0,00%	100,00%
BEDIA	27,78%	0,00%	0,00%	38,89%	33,33%	0,00%	100,00%
DIMA	57,89%	0,00%	0,00%	42,11%	0,00%	0,00%	100,00%
IGORRE	90,74%	0,00%	0,00%	0,00%	9,26%	0,00%	100,00%
LEMOA	77,42%	0,00%	6,45%	6,45%	0,00%	9,68%	100,00%
ZEANURI	85,71%	0,00%	0,00%	14,29%	0,00%	0,00%	100,00%
Total general	69,94%	1,16%	1,73%	21,97%	3,47%	1,73%	100,00%

baino gehiagok, autoa udalerrrian edo mankomunitatean zehar garraiatze-ko erabiltzen dute.


Garraio motari dagokionez, mankomunitateko biztanleen artean autoa da gehien erabiltzen dena. Autobusez, trenaz, bizikletaz edo oinez mugitzen direnak biztanleriaren % 48,41 badira ere, beste % 42,37k autoa erabiltzen dute. Hirugarren talde batean garraio pribatua eta publikoa tar-

katzen dutenak egongo lirateke, ia-ia biztanleriaren % 7.

Garraio publikoak geroz eta erabiltzaile gehiago dituen arren, arratiarren gehiengoak (% 47,67) autoa hartu behar izaten du lane-ra joateko

Galdeketa-aren beste atal batean, elkarrizketatuek mugikortasun eta garraio zerbitzuak ebaluatu zituzten, letik

Garraio mota erabilienak



10era puntuatuz. Hain zuzen, autoentzako aparkalekuen kalitatea eta kantitateak, oinezkoentzako guneak, bizikletentzako aparkalekuak eta bidegorriak puntuatu behar zituzten.

Puntuaziorik altuena autoentzako aparkalekuek jaso dute, batezbesteko 6,24 punturekin. Oinezkoentzako guneek ere hiritarren oniritzia jaso dute, 6,10eko notarekin. Bizikletentzako aparkalekuek eta bidegorriek, aldiz, ez dute azterketa gaititu. Hurrenez hurren 6,69ko eta 2,21eko puntuazioak jaso dute.

Ohiturak aldatzeko prest

Galdeketa-arekin amaitzeko, elkarrizketatuei garapen jasagarriaren izenean ingurumena hobetzeko eta zaintzeko ohiturak aldatzeko prest leudekeen galdetu zitzaizen. Zentzu horretan, nabarmentzekoa da hiritarrek garraio ohiturak aldatzeko azaldutako jarrera.

Elkarrizketatuen erdiak baino gehiagok, % 50,84k, garraio pribatua gutxiagotan erabiltzeko borondatea agertu dute. Egia da, era berean, beste % 34,13 ez dagoela horretarako prest. Garraio publikoari dagokionez, elkarrizketatuen % 82,62 garraio publikoa gehiagotan erabiltzeko prest azaldu da.

Arratiako Udalen Mankomunitateetik begi onez ikusten dituzte galdeketa- utzitako emaitzak. Mankomunitateko Agenda 21en koordinatzailea den Aitor Uriguenen hitzetan, “autoaren gehiegizko erabileraren arrazoiak bi dira: herritarren dispersioa eta Arratiatik lanera edo ikasketak egitera aterra behar izatea”.

Bere iritziz, mugikortasuna hobetzeko “garraio publikoaren zerbitzua indartu beharko litzateke”.

Arratiako ingurumena zaintzeko PRAKTIKA EGOKIAK

Ingurumena zaintzeko praktika egokiak jarraitzea norberaren aukera da. Jarraian dituzuen aholku ulerterraz eta eraginkorrak jarraituz Arratiako zein planetako ingurunea babesteko urratsa emango dugu.



Energia kontsumoa murriztu

- Kontsumo baxuko bonbik erabiliz, etxebizitzetako energia kontsumoa % 80 murriztu ahal da.
- Neguan, etxeko berotasuna aprobetxatzeko atek eta leihoak itxita mantendu.



Uraren kontsumoa murriztu

- Iturriak ondo itxi. Ur-tanta bakarrak egunean 30 litro ur pilatzen ditu.
- Dutzatzea nahikoa da, ez dago zertan bainatu beharrik.



Garraioa

- Aukera duzun guztietan garraio publikoa erabili.
- Modu eraginkorrean gidatu: bat-bateko azeleratzeak ekidin eta trafiko seinaleak errespetatu.

Arduraz erosi

- Plastikozko poltsen ordez, erosketak egiteko karrotxoak edo berrerabil daitezkeen poltsak erabili.
- Produktu ekologikoak eta berriro erabil daitezkeen ontzietan saltzen diren produktuak erosi.



Oinezbusa Igorren

Igorreko ikasleek OINEZBUSA ekimena sendotuko dute goizero eskolara oinez joateko

Lemoako eta Areatzako udalerrriak aitzindariak izan ziren Mankomunitatean OINEZBUSA ekimena abian jartzen eta egonkortzen. Ikasturte honetan, ostera, Igorreko ikasleek ere eskolara oinez joatearen eta ingurumena zaintzearen aldeko apustua egingo dute.

Ez da, halere, lehenengo aldia izango Igorren ekintza hau egiten dutena. 2006tik hainbat aldiz aurrera eraman dute ekimena, nola Europako Mugikortasun Jasangarriaren Astearen barne hala Arratiako Egun Berdeak ekimenaren baitan. Saiakera hauetan OINEZBUSA hilabetez gehienez jarri dute praktikan, baina partaide ugari izan ditu.

Halere, ikasturte honetan hainbat ibilbide zehaztuko dira eta ibilbide bakoitza geldialditan banatuko da. Zehatz-mehatz, ibilbide bakoitzak hiru geldialdi izango ditu eta hainbat monitoreren zaintzapean eskolarako bidea egingo dute Igorreko Inazio Zubizarreta ikastetxeko ikasleek.

OINEZBUSA zerbitzua abian jarrita ibilgailu pribatuaren erabilera gutxituko, arriskuak ekidingo eta jarrera osasungarriak sustatuko dira

Jarrera osasungarriak

Zerbitzu honekin ibilgailu pribatuak gutxiago erabiliko, arriskuak urrituko eta jarrera osasungarriak sustatuko direla jakinda, zerbitzua urte osoan zehar hedatzeko eta egonkortzeko apustua egingo dute Igorren.

Eskualdeko beste herrietan izandako arrakastari erreparatuta, Lemoa eta Areatza kasu, ikastetxeko arduradunak gogobetarik ekingo diote ekimenari.

Zerbitzua goizetan eskolara joaterakoan soilik izango da indarrean eta izen-ematen duten ikasle guztiek erantzukizun zibileko aseguria izango dute

OINEZBUSA martxan jartzeko metodologia erraza da oso. Lehenik eta behin, zerbitzu berriari buruzko informazioa emango zaie eskolako talde guztiei (ikasleak, gurasoak, irakasleak); eta interesa dutenak zerrenda batean bilduko dira. Ikastetxeak, bere aldetik, hiru ibilbide zehaztuko ditu San Juan, Garbe eta Elexalde au-



zoetatik; bide guztiak ikastetxe ingurura lotuko dira. Ibilbide bakoitzak bi monitore izango ditu, ikasle guztiak geldialdi bakoitzean jasotzeko eta eskolaraino zaintzapean eramateko.

OINEZBUSAREN ordutegia goizeko 9.00etatik 9.25erakoa izango da, eskolak 9.30ean hasten baitira. Zerbitzua goizetan eskolara joaterakoan soilik izango da indarrean, itzulerakoan gaitzagoa baita antolaketa eta parte-hartzea txikiagoa, ikasleen eskolaz kanpoko ekintzak direla-medio.

Ekimenaren arduradunek argi utzi dute OINEZBUSAN parte-hartzen duen ikasle orok erantzukizun zibileko aseguria izango duela.



“Garraibiderik jasangarriena da”

Jon Albizbeaskoetxea Lemoako J.B. Eguskiza Meabe Hiko zuzendaria da. OINEZBUSAREN zerbitzua indarrean dago Lemoan duela hiru urtedanik.

Zuen esperientziari jarraiki, ze abantaila ditu OINEZBUSAK?

Esperientzia oso ona izaten ari da, hainbat arrazoiengatik: ikasleen autonomia sustatzen du, fisikoki zailtzen dira, aktiboago iristen dira eskolara, harreman sozialak lantzen dituzte...

Eta, ezin ahaztu, garraibiderik jasangarriena dela.

Inongo dudarik gabe. OINEZBUSA eskolara joateko garraibiderik jasangarriena da. Agian, ikasle asko ez da horretaz ohartzen baina, pixkanaka-pixkanaka, ari gara ingurumena errespetatuko duten belaunaldi berriak hezten.

Etorkizunean ekimena ikastetxe gehiagotara hedatzerik espero duzu?

Gure aldetik ikastetxe guztiei egiten diegu ekimenera batzeko gonbita. Badakigu ohiturak aldatzea dakarrela ekimenak, gurasoekiko gehiengan, oraindik guraso askok uste baitu ekimen arriskutsua dela. Ea etorkizunean parte-hartzaile gehiago biltzen diren OINEZBUSERA.

Garraio publikoa ala pribatua?

Kalera atera gara Arratiako Mankomunitateko bizilagunen garraio ohiturak ezagutzeko. Hona hemen jasotako zenbait erantzun.



Arantxa Petralanda Igorre

Gu kotxeagaz asko ibiltzen gara. Eta Arratia aldean ere gero eta kotxe gehiago ibiltzen da egunero; ikusi besterik ez dago bidegurutze nagusian egoten diren auto-pilaketak.



Rufino Arzuaga Arantzazu

Gu ez gara asko ibiltzen kotxean; hartu ere ez dugu egiten, kasik. Autobusean joaten gara Bilbora eta inguruko herrietara. Udaletxeak jartzen dituen bonoak erabiltzen ditugu.



Iratxe Ortuzar Artea

Kotxea asko erabiltzen dut, autobusak badaude baina, adibidez, haurrak medikura eramateko ez dago beste aukerarik. Agian, Bilbora joateko metroa hartzen dugu gehiago azkenaldian.



Eider Aldape Dima

Milanen ematen dut urtea eta han beti bizikletaz ibiltzen naiz. Diman, berriz, kotxea hartu beharra dago inora joateko, nahiz eta autobusak gehitu dituzten azken urteetan.

Biodibertsitatearen balioa

Bizitzeko tokiak, pertsonentzako tokiak erakusketa Areatzan ikusi ahal izango da irailaren 30etik urriaren 4ra bitartean. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak antolatu duen erakusketa ibiltaria goizeko 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 16:30etatik 20:30era bisita daiteke udaletxean.

Erakusketaren osagarri, urriaren 2an solasaldi-konferentzia

antolatu dute Ludotekan, eta hurrengo egunean, urriaren 3an, *Super-bioak abian* kale-antzerkia plazan, arratsaldeko 18:00etatik aurrera.

Erakusketaren helburua Europako biodibertsitatearen galera geldiaraztea helburu duen egitasmo kolektiboa indartzea da, esfortzuak batuz eta laguntzak gehituz. Oraindik hasiera prozesuan dagoen ekimena Natura 2000 da.



Gaikako zabor-bilketa, “0” hondakina

Erabilitako etxeko olio, ehunak eta pilak jasotzeko urte hasieran kalean jarritako eduki-ontziek gaikako zabor-bilketa areagotzea erraztu dute, aurrez tratatu gabeko hondakinen isurketa murriztuz. 2009ko lehenengo sei hilabetekoan eduki-ontzi horietan 3.680 kilo etxeko olio jaso da, 2008ko lehe-

nengo sei hilabetekoan furgoneta ibiltariak jasotzen zuen kopurua bost aldiz biderkatuz. Bestalde, 2009ko lehenengo sei hilabetekoan 19.312 kilo ehun jaso dira.

Arratiako Udalen Mankomunitateko arduradunak pozik daude sei hila-

bete hauetan lortutako emaitzekin. Hala ere, hiri-hondakin solidoen kudeaketa zikloaren prozesu guztia ezagutzeko interesa agertu dute. Hori dela-eta, orain dela gutxi plastikoak, ehunak eta hondakin handiak birziklatzen dituzten instalazioak bisitatzen aritu dira.